

Hilabeteko aktualitatea:



Sartzerako proiektu berria

Ezagutzen dukezu « Jastakina ene Antton maitea » gure maleta, 2017an sortua. 8 joko proposatzen ditu elikaduraren inguruan, gai desberdinak jorratuz : osagarria, ingurumena, ondare kulturala, eta kontsumoa. Tresna horren osatzeko, gure langile taldeak maleta berri baten sortzeri buruz lan egingen du, Euskal herriko lurraldean diren 8 ekoizpenen ezagutarazteko (ekoizpen prozesua, irizpide ezberdinak...). Proiektu hori, Akitania Berriak, Euskal Kultur Erakundeak, eta Euskararen erakunde publikoak diriztatzen du.

Hilabeteko hitzorduak :

- **Irailaren 10a, larunbata, goizeko 10etatik arratsaldeko 2ak arte, Ezpeletan :** Elkarteen foroa
Deneri idekia, urririk
- **Irailaren 23a, ostirala (arratseko 8etatik 10ak arte), Ezpeletan (Pascalen eiheran) :** Xokoletaren ezagutzeko tailerrak, Cazenave xokolateriako Florian Benac-ekin.
Egitaraua: Baionako xokolateriaren ixtoria, cacaoaren bestelakatzeko prozesua, xokoleta ezberdinen jastaketa. Gaualdiaren ondotik trago baten partekatzeko parada izanen da.
Helduer idekia, 8 € (kideentzat) / 12 € (besteentzat). Izena eman Interneten bidez :
<https://www.helloasso.com/associations/sarde-sardexka/evenements/soiree-decouverte-le-chocolat-de-bayonne>
- **Urriaren 1a, larunbata Laruns-en :** Gasna feira, Hera deu Hromatje elkarteak antolatuturik.
Sarde Sardexkak animaturik (Laruns-eko herriko etxe aintzinean): Ossau-Iraty sormarka duen gasnaren ezagutza (desafio ezberdinak gustuaren inguruan, besteak beste)
Deneri idekia, prezio librean

Hilabeteko errezeta :

Udazkeneko basotxo



4 personentzako osagaiak : 400 gr gasna xuri – 6 udare – 3 koilara sukre – 100 g gaztain krema – 6 à 8 bretoiniar bixkotxa

Udareak pelatu eta zati ttipitan moztu. Zartain batean sukreakin errearazi, 15 minutuz udareak goxoak izan arte. Utzi hozterat. Bixkotxak puruskatu, eta basotxoaren zolan ezarri. Udareak gehitu gaineratik, gasna xuria, gaztain krema, ...hola segituz basotxo bete arte, gaztain kremarekin bukatuz.

Azkenik, bixkotx puruskatua eman gaineratik.

Anuntzio ttipiak :

Hilabeteko kazetarentzat, entseatu eta lortu dituzuen errezeta ideiak nahi gintuzke plazer baduzue !

